

## Eguberrietako jaia, bakarrik bizi diren edadetuentzat

■ Gabon Zaharreko afaria eta Eguberri eguneko bazkaria Donostiako hotel batean egingo dituzte ■ Foru Aldundiak eta Ongintzak antolatua da programa.



Hiru adineko, Urbieta kaleko bankuan eserita, lasai. Apenas hotelean horrela egoten omen diren!

LAU izarreko hotela aukeratu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, bakarrik bizi edo bakarrik sentitzen diren adineko bikoteek Eguberriak pozik eta gustora pasa ditzaten. Azken bost urteetan antolatu da eta urtero leku ezberdinerara joaten dira.

Herritik dozena erdi inguru joaten dira. "Eta hori asko da" -Ongintzako asistenteek "garai horretan ia denak familiara biltzen direlako".

**AUTOBUSA BILA ETORRI**  
Gabon gaua Igeldo hotelean pasa nahi dutenek ez dute herritik mogitu beharrik: autobusa etorriko zaie bila. Ordua eta lekua jartzen direnean, aterako ditugu. Hotelera, bostak aldera iritsi eta bederatzia arte animazioa; gero afaria, eta ondorenean dantzaldia goizeko ordubata arte. Hurrengo egunean: gosaria, animazioa eta bazkaria.

**3.000 PEZETAN**  
Lau izarretako hotelean jan eta lo egiteko prezioa merkea da, baina, denei ez zaie berdinerako. Hileko 45.000 Pta baino gutxiago irabazten dituenak 3.000 Pta ordainduko du afaria, loa eta bazkaria; 95.000 baino gehiago jasotzen dituenak, berriz, 12.000 Pta. Gainontzekoek tarteko zerbituak: 6.000 edo 9.000 Pta. Izena emateko: 943-557854. □

## MENDIRIZ MENDI

### Gaztetxoentzako ibilaldia: San Esteban - Andatza (562 m) - Zizurkil

■ Abenduaren 17an izango da ■ Izena ematea abenduaren 15a baino lehen.

MENDIRIZ MENDI elkarteak ibilaldia antolatu du gaztetxoentzako. Datorren igandea zortzi irtengo dira goizeko 08:00etan Atsegindegitik: San Estebana autobusean joan eta handik Andatza mendia igokodute. Ibilaldia Zizurkil

bukatuko da. Izena emateko Mendiriz Mendiko bulegotik pasa astelehen, ostegun edo ostiralean gaueko 20:00-21:00etara; abenduaren 15a baino lehen. Bazkideentzat 300 Pta; bazkide ez direnentzat, berriz, 600. □

## JUBILATU ETXEA

### Hilaren 11, 12, 18 eta 19an itxita egongo da

■ Obrak egiten ari direlako egongo da itxita.



Koadrila Jubilatuetabarnan, bazkal ostea goxatzen.

JUBILATU Etxea itxita egongo da datozen bi asteetako astelehen eta astearteetan. Berritze lanak hasi dituzte, eta gehiena egin badago ere datozen bi asteak beharko dituzte oraindik, azken ukituak emateko.

## TXUKUNTZEN

Argiak berritu dituzte etxe guztian, komun bat ere bai; komun berri bat egin dute sukaldean. Goitik behera pintatu eta musika aparatu berria jarriko dute, moderno askoa. □

## ■ 3. MAILAKO FUTBOL LIGA

### Hernanik 0-1 irabazi du Bermeon

AZKEN bereratzit puntuetatik bakarra aterata, zuri berdeek irabazteko premia gorrian zeuden, eta baita irabazi ere! Bi taldeek berdintsu jokatu dute; ez da bat nabarmendu. Baina, Barandiaranek sartu du gola bigarren denborako 13garren minutuan, eta puntuak etxera.

**FUTBOL ZELAIA GAIZKI**  
Ikusteko partidu txarra izan omen zen atzokoa: "kanpoa gaizki zegoen, leku batzuetan hondarra...". Jokatu baino gahiago balioak aurrera bota eta korri egin behar izan dute. Datorren partidua Pasaiko Sanpedroren aurka, Zubipen.



Bermeori irabazi eta ea Hernani ez den berrito Zubipen erortzen!

**HATOR**  
AHOLKULARITZA

Asesoria

Fiskala  
Laborala  
Kontablea  
Administratiboa

**HATOR**  
Aseguruak

Kardaberaz 60  
Tel. 943. 55 43 12  
20120 HERNANI

**ETXE ONENAK, S.A.**

**GARAJE ITXIAK 'OBLATOS'ETAN SALGAI**

Informatu eta saldu:  
☎ 943 33.22.37

Skoda Octavia. Bizitza osoa aurretik.



OCTAVIA bat 1.995.000 ptatik.\* (11.990,19 euro\*)  
\*Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa Skoda Octavia 16V Classic Garraio eta zergak barne. 1 euro=166,386 pta.

**MENABI**

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 43



## KONSTITUZIO EGUNA, ATZO

# Udal zerbitzu gehienetan, AEKn eta zenbait komertzioetan lan egin zuten

■ Udaletxean borondatezkoa izan zen lanera joatea, epaileek arrazoia EA-PNVri eman diote-eta ■ Irekitako komertzioetan mogimendua izan omen zen.



Gudarien Enparantzan atzoko kontzentrazioan.

UDALETXEKO langileen ko-miteak bultzatuko iniziatiba izan da Santiago, Pilar eta Konstituzio egunetan lan egitea "espainiar izaerakoak" direla iritzita. Udalak komite-

aren erabakiarekin aurrera egin zuen eta EA-PNVk epaitegietan errekurritu, udala erabaki hauek hartzeko nor ez zela leporatuta. Epaileen sententzia ostiralean iritsi zen:

"Udalak ez du erabaki hori hartzeko indarrik eta ezin ditu bere lan egunak izendatu."

**ZERBITZUAK ZABALIK**  
Udalan borondatezkoa izan da lanera joatea, eta jangela ez beste zerbitzu guztiak ireki dituzte. Langileek bilera egin dute sententzia azaldu eta iritzia emateko. Hurrengo bileran bozkatuko dute datorren urtean zer egin.

### KONTZENTRAZIOA ETA MAHAI INGURUA

Eguerdian kontzentrazioa izan zen Konstituzio eguna jai egun izatearen kontra; inulabarrean desobediencia zibilaren inguruko mahai ingurua.

Komertzioetan, bestalde, mogimendua izan omen zen, baina "Pilarika egunean baino gutxiago" dendari baten hitzetan. □

## ESKOLARTEKO KIROLA

DATORREN asteburuan ez da eskolarteko kirolik izango; zubi luzea dela-eta, umeei

deskantsua ematea erabaki baitute. Hurrengo jardunaldia abenduaren 16an izango da.

Gaur ez, baina, aurrerantzean emaitzak azaltzeko moduan izango gara. □



Urumea, Langile eta Elizatxoko pelotariak, larunbatean, entrenatzaile eta guzti. Hori da planta!

## JASOTA BEZALA

### AGRESIO BASATIA

Duela bi aste, Urtzi Garciak gure koadrilako bi lagun erasotu zituen. Hauetako bat buruan jasotako kolpeen ondorioz larriki zauritua suertatu zen eta ospitalean aste bete ingresaturik egon da. Hasierako kolpeen eraginez konorterik gabe lurrean babesik gabe zegoela, Urtzi Garciak (erasotzaileak) osti-koak buruan ematen jarraitu

zuen. Argi eta garbi adierazi nahi dugu hirugarren pertsona batek eraso hau eten zuelako dagoela bizirik gure laguna. Idatzi honen bidez, eraso hau publikoki salatzeaz gain, erasotutako izan ziren gure lagunei elkartasuna eta babes osoa helarazi nahi diegu. Era berean, horrelako jarrera agresiboa eta biolentzia azaltzen duen jendea bizkarra ematea eta baztertzea ezinbestekoa

dela iruditzen zaigu, halako basakeriarik ez errepikatzea guztion ardura baita.

### Erasotutakoen koadrila.

#### Zure gutunak:

Helbidea:  
Larramendi, 11  
E-Posta:

[kronika@topagunea.com](mailto:kronika@topagunea.com)

Gehienez 800 karaktere. Izen abizenak edo taldearen izena jarri. NA zenbakia bidali.

## HITZ BITAN



Hernaniar bat kamilan etzana, odola ematen.

### ✓ ODOL EMAILEAK

**73 odol boltsa asteartean.** Hernaniko odol emaileek aurreko hilean baino hobeto erantzun zioten joan den astearteko zitari. Normalean, 70-80 boltsa biltzen dira. Hurrengo txanda, XXIgarren mendeko lehen asteartean.

### ✓ DURANGOKO AZOKA

**'Kronika' Durangoko diska eta liburu azokan.** Hernaniko Kronika egun hauetan Durangoko azokan izango da. Euskara Elkartearen Topagunearen (Dobera hor dago sartua), postuan egongo da gainerako euskara elkarten produktuekin batera.

### ✓ 3/4 PLATAFORMA

**Kontzentrazioa Plaza Berrin, 19:00etan.** Joxan Pagola *Beltza*, Pakito Lujanbio eta Xabier Arnaizen askatasuna eskatzeko *Hiru laurden* plataformak hamabostean behingo kontzentrazioa deitu du gaur arratsalderako.

### ✓ FERIA

**Ostegunetako feria gaur Urbietan.** Jaiak jai eta zubiak zubi, ostegunetako feria beti bezala egingo da gaur eguerdi-arratsaldean. Urrian, Pilariketan (osteguna) ostiralera atzeratu zen. Gaur, aldenik alde hor izango da dena.

### ✓ KARABEL AUZOA

**Mus eta Tute Txapelketak, datorren asteburuan.** Larunbatean eta igandean jokatu dira aurtengo Mus eta Tute txapelketak: larunbatean musa, eta igandean tutea. Jendea beste urteetan bezala biltzen bada, aurten ere 20 bikote izango dira txapelketa bakoitzean. Hasi eta bukatu arratsalde berean egingo dira: 15:30etan hasi eta bukatu arte. Sari banaketa, igande arratsaldean, Mus Txapelketa bukatuta.

**Krossa, pintura eta idazlan txapelketarako izen ematea azkenetan.** Hernaniko ikastetxe eta Club Deportivoekin batera antolatuta, abenduaren 17an egingo da 10-16 urte bitarteko ume eta gaztetxoentzako festa eguna.

## AGENDA

### ERAKUSKETA

Alberto Elosegiren argazkiak.  
Txema tabernan.

Vietnam-i buruzko argazki

### erakusketa

Zumardi jatetxean.

### ZINEA

Road trip (*Ero bidai*)  
Biterin, 22:30etan.

## IRRATIAK

**Hernaniko ahotsa (F.M. 99.2):** 11:50etan: Vietnami buruzko argazki erakusketa egin duenarekin elkarrizketa. 12:30etan: *Euskaldunon Egunkariako* zuzendariordearekin solasean, Egunkariak 10 urte betetzen dituela-eta.

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

▶Taxiak: 943 550093  
▶Udaltzaingoa: 943 333288  
▶DYA: 943 464622  
▶Autobusak: 943 556662  
▶Anbulatorioa: 943 557750

### ☎ FARMAZIAK

▶Egunez: Bulnes Etxeberri, ☎ 943 557738  
▶Gauetz: Acha-Orbea Lasarte, Hipodromo etorbidea, 6 ☎ 943 3634



Laguntzaile:

**HERNANIKO UDALA**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak